

## Donostiar Orfeoia mandatari bikaiña

Bordelen azken aldiz egon nintzeanean, duela urte batzu dagoeneko, futbol talde baten entrenatzaile bezala izan zen. Egun berriro itzuli naiz Gironde-ko hiriburura, oraingo honetan Orfeoia atzetik, aipatutako elkartearen zuzendari batzordeko kide bezala.

Ez naiz arrakasta artistikoaz mintzatu, horretarako kritikariak baitaude, nik baino hobeto egingo dutenak, baina bai pozez bete ninduen gertakari batez. Behin eta kantarien emanaldia bukatu zenean, gure lehendakariarekin erdaraz hitz egiten entzun zigun gizon bat hurbildu zitzaidan, ea donostiarrak ginen galdetuz. Gure baieztok erantzunaren ondotik bere atsegin adierazi zidan aingeruek bezain ongi abesten zutela esanez, baina, batez ere, aspaldiko kantari trebe batzuetaz aparte, beste guztiak gazte-gazteak zirelako (gehienak 18-20 urteko neska-mutilak baitira), esannahi handiko gauza berau herri baten kultur balorapenerako, eta horrek, maizegi ematen diren berrien aurka, zeharo imajina ederra ematen zuela gure hiriaz (berak asko maitatzen eta sarri bisitatzen omen du). Elkarri agur esan genionean honelaxe esan zidan: «Zuek bezain ongi abesten duen herriak gailendu egingo du». Halako gorazarreak entzutearen pozaz eta aurkako zelaian bi positibozko garaipena lortu genuenaren dardadaz geure Txokora itzuli ginen. Behin hemen garelarik eta idaztera oso emana ez naizenarren, eta are gutiago euskal aldizkarietan, honela egitea erabaki dut, gure Orfeoiko kideek ezagutu dezaten eta gainera gure herriak, bizi ditugun uncotan, halako gauzak entzun beharra duela uste dudalako.

Joseba ELIZONDO  
D.N.I. 14.970.960

## «Euskerazaintza»ren miraria

Neu bezalaxe, onuzkero asper-asper egiña zaitugu, irakurle, izketaldi geinetan lelo bera entzutez: zar-gazteen arteko elkar eziña, guraso ta seme-alaben iritzi ezberdiñak... Lena berriz-lena berriz, gogaitua erabat.

Bestelakoak ere, ta uste baiño geiago, bazterretan gertatzen dirala adierazi nai lerro auetan.

Urteko BATZAR NAGUSIA Azpeiti'ko Loiola'n izan du aurten «EUSKERA-

ZAINTZA»k, joan dan illaren 19 ta 20'ean. Talde ederra bildu giñan: gizon eta emakume, zar eta gazte, ezkondu ta ezkongai, apaiz eta ezapaiz, danetarik ba-zenun an. Orduntxe lenengoz elkar ikusten zutenak ere, lagun zar bezelaxe ageri zituzun elkar-izketan. Ba-ziran ala ere, geienean elkarren inguruan zebiltzan «Donostia'ko iru damatxo».

Lana, gogotik egin zan lana BATZAR NAGUSIA'n. Txolarte gutxi, Bazkalondan Loiola'ko zugaizti ederrean joan-etorri batzuk eta... lanera berriz ere arratsalde guzira. Ta itz zakar bat ez iñork, ta asarre txikienaren itzalik ere ez. Baiña ez uste, irakurle, jendea entzule mutu egon zanik. Bakoitzak bere iritzia patxadan azaltzen bai-zizun.

Gauerako etxera joan zitzaizkigun geienak ta biaramonean berriz itzuli zortzi-amarren bat lagun gelditu Loiola'n. Auen artean, Donosti'ko iru damatxoak.

Bazkaria launako maietan jarri ziguten, baiña apaltzeko, lagun gutxi giñanez gero, maiak elkartu ta guziok batean alaitasun gozoan.

Jan-gela ustuzeko garaia ere iritxi zan, ba, ta bakoitza bere gelara. Bakoitza... Gizonezkoek zer egin zuten ez dakit, baiña iru damatxoak gazteenaren gelan bildu berriz ere.

Iru gelak zituzun politikak, irakurle, baiña politena gazteenari utzi. Leiotik ageri zan ikuskizunaren ederra! Orly ta Torre ta abenida'ko diru-etxe arruntak eta, ikustez okituak dagozen donostiar begientzat, atsedean lilluragarria. Autopista zatar oriek barrena etorri ta gero batez ere. Leiopean lorategia; onen urrena Urola bultzi txikia, jostailluzkoa iduri, bere kir-kir txuloan sartzen. Ez urruti, erreka mur-murra entzuten. Aurreko mendian, ez urbillegi, iru edo lau baserri jator. Guzia txiki, guzia eme (Lizardi'rena).

Pozik egongo aiek guziak begira ta entzuten, baiña Loiola'ra ez giñan atsedean billa joanak.

Jardunaldietan entzunak ausnartu ta

aztertzer, barnera berriz ere. Bi lagun oe gainean eseriak; irugarrena zutik, ekin berriz ere euskera zaintzen. Ordutan ez zenun an entzun, irakurle, ez janzi ez orrazkera, ez iñolako modari buruz itz erditxo bat.

Alako batean, zarrenak: Adixkideak, besteak biar etortzerako, jeiki, jantzi, txukundu, Meza entzun eta gosalduegin bear dugula, aztu egin ote zaizute?

Goizeko ordu bata zan eta logalerik ez.

Lerro auek irakurri ta iñondik mirariaren aztarnik ez, onuzkero zuri bai logalea sartu, irakurle.

Orra, ba, miraria: zar-gazteak ezin elkar artu dutela esan eta esan ari diran garaiean, iru gizaldi, iru, elkarrekin euskeraren alde, ari ta ari bi egunean. Ta txangoa motxa iruditu gainera. Maizago egin bear omen lirake orrelako batzarrak.

Iru gizaldi bai: onoko au, ni alegia, 72 urtekoa. Nire alaba izan ziteken Mari Koro bigarrena ta onen alaba izan zitekena, Miren Jule, irugarrena.

Mirarira irixten ez ba'da ere, gertakizun arrigarri, pozgarria bai beintzat, EUSKERAZAINTZA BATZAR'an Loiola'n gertatu au.

IRA'k

### ZUZENDARITZA

J.A. Elustondo  
A. Miner Goikoetxea

### BANATEGI TA DIRU-ERAGINTZA

Goiz-Argi. Guetaria, 21, bajo.  
Urrut. 428459

DONOSTI

### IRARKOLA

Iparraguire, S.A.  
C/ Galdácano, s/n  
Depósito Legal: 1.078/69  
BILBO

## Donosti'n etxe-bizitza baten billa

Donosti'n lan egiten dugun bost goieritar gaztek etxebizitza bat artu nai genduke alogeran uri-buru ontan.

Kontratua uztailaren 1'ean asiko litzake eta gutxienez urtebeterako bear luke izan.

Interesatuta dagonak dei beza 428459 urrutizkiñera oizko lan-ordutan.